

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 4195

*AGINDUA, 2024ko abuztuaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita sail honetan lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duen urtarrilaren 13ko 3/2009 Dekretuak ezarri zuen Hezkuntzako Ikuskaritzako lurraldeburuaren lanpostua. Lanpostu horren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 14. artikuluan daude jasota.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 13.5 artikulua xedatzen duenez, Ikuskaritzako lurraldeburuak zuzenean egongo dira ikuskari nagusiaren mende, eta hezkuntzaren alorrean eskumena duen saileko titularrak izendatuko ditu, ikuskari nagusiak proposatuta, izendapen askeko prozeduraren bidez.

Bat etorritik Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102. artikuluan xedatutakoarekin, sail honek erabaki du deialdia iragartzea agindu honen eranskinean azaltzen den lanpostua izendapen askez betetzeko. Hona hemen deialdiaren

#### OINARRIAK

Lehenengoa.– Agindu honen eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete agindu honen bidez iragartzen den lanpostua.

Bigarrena.– Interesdunek Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, 5 egun balioduneko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Eskabidean, datu pertsonalak eta gaur egun duten destinoa adierazi beharko dituzte.

Hirugarrena.– Izangaiek, idazkiarekin batera, curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute, datu hauek jasoko dituen:

- Titulu akademikoak.
- Administrazio publikoan betetako lanpostuak.
- Ikasketak, ikastaroak, hizkuntzak eta egoki iritzitako beste edozein merezimendu.

Aurrekoaz gain, eskatzen diren betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte izangaiek. Halaber, egoki iritzitako argitalpenak, txostenak edo beste edozein agiri aurkeztu ahal izango dituzte.

Laugarrena.– Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 102. eta 103. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak organo teknikoari bidaliko dizkio jasotako hautagaitzak, organo horrek egin dezan lanpostuaren monografian eskatzen diren gaitasunak egiaztatzen dituzten pertsonen zerrenda, eta Hezkuntza Sailari proposa diezaion 3 pertsonaren zerrenda bat, lanpostua betetzeko egokitasuna eta konpetentzia profesionalak egiaztatzen dituenak. Pertsona horien gainean egingo da lanpostua bete behar duen pertsonaren hautazko izendapena.

2024ko irailaren 10a, asteartea

Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez ebatziko da deialdi hau, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aurrera. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunear jarriko da indarrean.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 27a.

Hezkuntzako sailburua,  
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

2024ko irailaren 10a, asteartea

## ERANSKINA

Deitutako lanpostua: lanpostu 1.

Izena: Ikuskaritzako lurraldeburua.

Kokalekua: Gipuzkoako Ikuskaritza.

Destinoaren kokalekua: Donostia / San Sebastián.

Titulazio-taldea: A1 taldea.

Kidegoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako ikuskariak.

Urteko berariazko osagarria: 6.566,42 euro.

Hizkuntza-eskakizuna 2.a, egiaztatua.

Lanpostua betetzeko baldintzak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko karrerako funtzionario izatea.
- Jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan edo seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian egotea.
- Era berean, aipatutako kidegoko karrerako funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketan, baldin eta nahitaezko eszedentzian, beste administrazio publikoren batean lanean, funtzio-gabetuta edo borondatezko eszedentzian badaude. Horretarako, egoera horietarako ezarritako epea bete beharko dute.